


## Galtxetaburu Eguna Uharte Garazin, urriaren 30ean

[francebleu.fr/emissions/le-magazine-en-basque-euskal-magazina/pays-basque/galtxetaburu-eguna-uharte-garazin-urriaren-30ean](https://francebleu.fr/emissions/le-magazine-en-basque-euskal-magazina/pays-basque/galtxetaburu-eguna-uharte-garazin-urriaren-30ean)

Xexili Foix, Ainhoa Altuna



Jeudi 27 octobre 2022 à 12:10 - Mis à jour le jeudi 27 octobre 2022 à 14:20

Duela 4-5 urte sortu zela Galtxetaburu-ren homenezko disko baten ateratzeko ideia.

Beñat Irigoyen "Galtxetaburu", Baxe Nafarroako soinu-jole ezaguna zen. Bere musika herrikoa eta azkarra zen eta horregatik nahi izan dute bere homenez disko bat atera. 1988an grabatu musika batzuetatik abiatuz Aiko taldeak grabatu ditu doinu horiek.

Disko horren presentatzeko, heldu den urriaren 30ean igandearekin, Uharte Garazin egun berezi bat antolatzen dute.

Goizeko 11etatik goiti, bertako musikariak izanen dira jendea dantzartzeko, ondotik hitzalsiak, aperitifa, bazkaria eta arratsaldeko 4etan, Aiko taldea bertan izanen da, disko grabatu musiken jotzeko. Parada ukanen duzue ere bertan diskoaren erosteko.



Galtxetaburu eguna

Galtxetaburu eguna - Aiko taldea